

# EL TRIUNFO DE TELLERÍA

El resonante éxito que con el poema sinfónico «La dama de Aitzgorri», ha obtenido en Madrid Juanito Tellería, ha repercutido en los valles del Aitzgorri; y Cegama, su pueblo natal, se apresta a dedicar a su hijo benemérito el homenaje debido a sus merecimientos, a cuyo efecto se ha circulado profusamente la siguiente arenga euskérica:

¡ZEGAMATARRAK!

**P**OZTU gaitean, bai poztu. ¿Zer dala ta? Zegama'ko erriak, seme bizkorrak eman dituala len ta oraiñ, eziñ ukatu. Zegama'ko umea zan, arako On Juan Lopez de Andoain, ta benetan seme errutzua an urrutietan Filipina'ko lurretan, soldaduzkako Kapitana izanik eta soldaduzkako gon-goneko mallara igota, au da, Jeneralaren izena alderdi onetara artzera zetorrela, itsasoko ekaitz gogor batek bere artean igentzi zuan ura. Zegama'ko umeak ziren On Franzisko de Galbete nola ta On Leandro de Lazkano, bata Españiko Errege 4<sup>-ren</sup> sendagin edo medikua; ta, ain jakinduri aundikoa, nun idatzi zituan balio aundiko liburuak; ta bigarrena berriz, erri onetako kondairak ala dio, Españiko Errege 7<sup>-ren</sup> sendagille oso kutuna izandu zala.

Eliz-gizonetan gureak ziran Dr. On Tomas de Berasategi, Iruña edo Panplona'ko Obispo Dr. On Esteban Antonio Aguado ta Rojaren Goarpelari edo Sekretarioa, nola ta, Dr. On Esteban Senen de Arzak, Iruña bertako Katedral edo Eliz-nagusiko Kanonigo Arzedianoa, gero 1862-garren urtean Gazteiz'ko edo Bitoria'ko Obispo izan bear zuana, berak ala nai izatea. Ta beste zenbat orrelako. Zegama'ko erriak seme argi ta ospatzuak gaur bertan-ere, nun nai dauzka bai abare edo Eliz-gizon, nola ta gudari, sendagin, ingeniero, letradu ta abar.

Baña osatzeko, beste seme batek palta egiten zigun, ta orra oru-

tzune ori betetzeko, nun agertu zaigun oraindio oso gazte On Juan Telleria, musika antolatzeko ortan, gon-goneko maisua. Bai, ots aundia atera du, oraindio oraiñ or Madril'go Odeon deritzayon Iruditegi edo Teatroan, gure gazte onek antolatutako «Aitzgorri'ko Dama» deritzayon, musika soill batek. Probintzi onetako paper danak, ta, batez-ere Madril'go gazeta bai zuriak nola ta nabar ta beltzak, jaso dute lañotan gora gure Telleria jauna bere esandako musika saill eder ta dotore orren antolaria dala ta ezdala.

Bai, barreatu dute goi ta be, orrelako amaren umeak oso banaka izan oi direla, edozein gauza merezi duala bere jayot-erria nola ta bere probinzia zorionean daudela; da esatea, erbestekoak ezin da geyagoraño tšalotu dutela gure «Aitzgorri'ko Dama'ren» egillea, ta gu bere erritarrak, ¿beragatik ezer egin gabe, eskuak gurutzatuta egotea egoki ote litzake?

Ez oriše. ¿Ze naidegun? Ez gatoz diru eske. ¿Ze egin gezaken gure erritar ospatzu ori jaitu ta jolasteko?

Orra:

Aurrena. Egun ta ordu markatua, ainbeste bider aitaturako gure erritar kutun On Juan Telleria'ri jaitu ta jolastutzeko, izango da, Abendua'ren 9-an, au da, datorren domeka, amaikatik amabietara.

Bigarren: Bespera illunabarrean, nola ta markaturako egunean goizean-goiz, erriko musika edo otsankidariak, kalean gora ta bera, alai-tuko dituzte bertako bizi lagunak.

Irugarren: Erriko kaleko bizi lagunari, erregutzen zaite goizean goizetik, apaintzeko eren etšetako leyoak.

Laugarren: Amaikatan Meza nagusia eman ondoren, bilduko gera plazan jende-talde aundi bat, aundi ta tšiki, andra ta gizon; ta, erriko tñntunak buruko ditugula, irtengo diogu bidera Telleria jaunari, ta, ostera, ibille labur baten ondoren, elduko gera erri-etseko gela nagusira, ta, emen Alkate jaunak goraturik ta emanik zoriona ta ongi etorri bero bat gure gazte oso trebe ta maitetzu orri, oni, bere lagun ta adizkide apartekoak, emango die baskari guzizko bat, ta onen ondoren us-tegabeko jolasen bat. — Zuzenlariak : *Jose Asurmendi, Juan Echeberria.*